

# Kopraixak 2022

## egitaraua egunez egun

Guztia prest dago Itziarren sei egunez luzatuko diren Kopraixei harrera egiteko. Apirilaz geroztik lanean dihardu Jai Batzordeak eta bertan parte hartzen duten eragile guztien elkarlanaren fruitu da aurtengo festetako egitaraua. Hemen duzue ikusgai abuztuaren 5etik 10era bitartean antolatutako ekimen sorta.



### Abuztuak 5, ostirala

**19:00:** Bertso-pilota, finala.

### Abuztuak 6, larunbata

**10:30:** Umeen pilota-partidak.

**16:00:** V. Itziar Trail mendi-lasterketa. Izen-ematea: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)

**16:15:** Umeen V. Itziar Trail lasterketa.

**18:30:** Joselontxo's txaranga eta buruhandiak.

**19:00:** Txupinazoa, Marixiren etorrera eta danborrada.

**23:30:** Erromeria plazan: AKERBELTZ.

### Abuztuak 7, igandea

**07:30:** Leizarrango zezenak.

**11:30:** Meza nagusia.

**12:00:** Txakolin-dastaketa eta Jokin Eizmendi harri-jasotzailearen erakustaldia.

**18:00:** XVII. Bikoteen Arteko Dantza Suelto Txapelketa.

**Ondoren:** Errekortari gazteak eta Leizarrango zezenak.

**23:00:** Kontzertua elizan: OLATZ SALVADOR.

### Abuztuak 8, astelehena *Bikoteen Eguna*

**11:30:** Meza.

**11:30:** Kalejira: Jan da Eran txaranga.

**12:00:** Sagardo-dastaketa eta bertsolariak: Alaia Martin eta Iñaki Apalategi.

**12:30:** Txan Magoa frontoi zaharrean.

**14:30:** Herri bazkaria.

**18:00:** Herri-kirolak, helduen arteko jolasak, aurrekua eta Leizarrango zezenak.

**23:30:** Erromeria plazan: LAIOTZ.

**00:30:** Playback txapelketa.

### Abuztuak 9, asteartea *Umeen Eguna*

**11:00:** Umeen arteko jolasak.

**13:00:** Entzierroa. Leizarrango zezenak eta pottokak.

**14:00:** Umeen bazkaria Salegi jatetxean.

**17:00:** Indartsuak ikuskizuna, euskal dantzak, Leizarrango zezenak eta pottokak, eta buruhandiak.

**19:30:** Kantu-jira.

**20:00:** Bokadilo-jana tranpapean.

**Ondoren:** Zezensuzkoa.

**22:00:** Erromeria plazan: GAUARGI.

### Abuztuak 10, asteazkena *Gazteen Eguna*

**10:30:** Ur-jolasak eta puzgarriak umeentzat.

**11:30:** Bizikleta lasterketa erreleboka.

**Ondoren:** Kuadrillen arteko jolasak eta zezenak plazan.

**14:30:** Paella txapelketa, frontoian.

**17:30:** Kalejira plazara.

**18:00:** Kuadrillen arteko jolasak, aurrekua eta Leizarrango zezenak.

**23:30:** Kontzertua: ANITA PARKER.

**Ondoren:** DJ BULL.

**06:00:** Zumba maratokia.

**07:00:** Peto jaitsiera eta gaupaseroen argazkia.